



Ayuntamiento de
Tafalla
Tafallako Udala



 Nafarroako
Gobernua



Kultur Programazioa

Tafalla 2015 **urria-abendua**

urr. 10 larunbata

OPERA KOMIKOA

Nafarroako Ganbera-Opera

“El traje nuevo del emperador”



Nafarroako Ganbera-Operak Iñigo Casallé musikagile nafarrari eskatutako Opera komikoa da honako hau. Pablo Valdesek, idazle eta dramagilea, gaztelaniaz idatzitako testua da Hans Christian Andersen-en ipuinan oinarritua. Ekitaldi bateko obra da, opera komikoa, publiko guztiztat, antzerkia, musika eta dantza uztartzen dituena.

Badulio errege harroko eta pinpirinak Sirolé enperatriza maitemindu nahi du. Honek bere aldetik enperadore bihurtuko den senarra bilatzen du. Enperadoreari bi komikok limurtzen diote eta agindu inoiz josi ez den trajea josiko diotela urrearen truke. Arazo bakarra dago: pertsona adimentsuek bakarrik ikus dezakete Ferruccio eta Luccia jostunek erabilitako ehun aparta.

Sarrera: 8 €

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea – 20:30

urr. 17 larunbata

ANTZERKIA

Acrónica Producciones

“Bancarrota”



Bancarrota duela 200 urte baino gehiago CARLO GOLDINI idazle italiarrak idatzitako testua da eta gaurkotasan handiko gaia jorratzen du. Hemen ez dago klaseen arteko borrokarik. Ez dago aberatsik, ez pobrerik ere; dutenen eta ez dutenen artean ez dago gatazkarik; ezta dutenen eta gehiago nahi dutenen artean ere. Aurkezten dena da dirua izeneko entelekia eta gizateriaren arteko talka. Dirua denen kontrako borrokan, suntsituz dirua dutenen ametsa eta nerbioak, desio dutenena ere bai, giza/gizarte harremanak menperatuz, esklabo bihurtuz. “Bancarrota” antzezlanak eskuratu du Gayarre Antzokiak eta Nafarroako Gobernuak antzerki proiektu onena saritzeko antolatzen duten lehiaketa (2015).

Sarrera: 8 €

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea – 20:30

urr. 23 ostirala

ANTZERKIA

Zanguango Teatro

“Aquí va a pasar algo”



Bere nortasuna etengabeen sortu behar duten bi gizon dira protagonista. Aztanda bila dabilta nor diren jakiteko. Irudimen ariketa bat da, aldarrikatuz jokua bizitzaren ardatza dela.

Hunkitu egingo zaituen ikuskizun komiko-poetiko, egoera barregarriak bizi araziko dizkizuna. Identifikatua sentituko zara.

Sarrera: 8 € 

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea – 20:30

urr. 27,28,29,30

MUSIKA

Nazioarteko XXI. Ziklo Korala



Aurten berriro ere Tafallara etorriko da Nazioarteko Ziklo Korala. Aurreko urteetan bezala eta Nafarroako Abesbatzen Federazioaren eskutik, jatorri askotariko abestaldereen lau kontzertu izango dira gure hirira hurbilduko direnak. Aurten berrikuntza bezala Tafalla Kulturgunean ospatuko dira ekitaldi hauek. Honako hau da egitaraua:

Urriak 27:

EMILS DARZINS KORIS (**Letonia**)

Urriak 28

MARZCIBÁNYI TER GYERMEKKARA (**Hungaria**)

Urriak 29

STOCKHOLM MUSIKGYMNAZIUM CHOIR (**Suedia**)

Urriak 30

CWU CHAMBER CHOIR (**Estatu Batuak**)

Sarrera: 6 € 

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea – 20:30

HIRUGARREN SEKTOREKO ANTZERKI JAIALDIA

urr. 31 larunbata

HIRUGARREN SEKTOREKO ANTZERKIA

Plétora Teatro (Plasencia-Cáceres)

“Te quiero, eres perfect@... ¡Ya te cambiaré!



Bai, badakigu antzezlanaren eszenaren batekin identifikatua sentituko zarela. Ulergarria da komedia honek pertsoneri buruz, bikoteei buruz hitz egiten duelako, lehen hitzorduan, ezkongaietan, senar-emaztean bizi izaten diren egoerei buruz hitz egiten duelako.. nork aginduko zidan niri seme-alabak izatea... Komedia musikal zentzugabe honetan, New York-eko Off-Broadwayko arrakastarik hoberena, 9 aktorek taularatuko dituzte 84 pertsonai, 17 eszena dinamikoetan, 19 gai musikalez girotuak, freskuak eta jostagarriak, antzezlanaz bezalakoa.

Sarrera: 6 € 

Centro Cultural Tafalla Kulturaunea – 20:30

aza. 7 larunbata

HIRUGARREN SEKTOREKO ANTZERKIA

El liceo de Epidauró (Alicante)

“Se vende”



Zenbat aldiz etorri zaigu gainera gure denbora galtzeko prest dagoen gizon trajeduna, gorbataiduna, interesatzen ez zaigun zerbait eskaintzera datorrena? Nor dago maletin horren atzean? Noraino igo daiteke presioa, azkenik balbula leher dadin? “Se vende-Salgai” saltzaile hauetako batzuren istorioa da, krisiaren soga lepoan sentitzen dutenak, bere mugak gainditzeraino. EPIDAUROK antzerki-thriller hau aurkeztzen du David Mameten testuetan oinarritua. Bertan ikusiko duzue denak baduela prezioa, baita zeure buruak ere.

Sarrera: 6 € 

Centro Cultural Tafalla Kulturaunea – 20:30

aza. 14 larunbata

HIRUGARREN SEKTOREKO ANTZERKIA

La Peseta Teatro (Gijón-Asturias)

“El rey se muere”



Monarkari jakinarazten diote bere bizitza emankizunarekin batera amaituko dela. Berarekin batera erreinua, erreinu kaskarra, desagertuko da, nagikeriak higatua.

Antzerkiak eman duen heriotzaren metaforarik sakon eta gupidagabeenatariko bat bezala hartua, umorea dario eta egoera komikoz eta ilogikoz betea dago. Ionescok surrealismotik idazten du azpimarratu nahi du gizakiaren nabarmenkeria eta isolamendua.

Sarrera: 6 €

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea – 20:30

aza. 21 larunbata

HIRUGARREN SEKTOREKO ANTZERKIA

Enterarte Teatro (Boecillo-Valladolid)

DIVINAS PALABRAS



Juana Reinaren Heriotzak anaien arteko desadostasuna sortarazten du ilobaren kargu egitearren. Iloba azokaz azoka eramaten duten desgaitu bat da, koitadua erakutsiz amu bezala jasotako “herentzia”ri etekin mamitsua ateratzeko asmoarekin.

Azoketako batean Marigailak, hildakoaren koinatua, Lucero ezagutuko du, aztzi itxurako saleroslea, gaztea limurtu eta gertaera jauzia eragingo du.

Lizunkeriak, diru-goseak eta heriotzak bat egiten dute fabula honetan, non animalia esentzia mundu gordinaren protagonista den.

Sarrera: 6 €

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea – 20:30

aza.28 larunbata

ANTZERKIA TERCER SECTOR

Kumen Teatro (Langreo-Asturias)

"Troyanas" (Talde gonbidatua)



Las Troyanas gerra tragedia bat da; gerraren ondorioak biltzen dituen ikuskizuna, min gehien pairatzen duten biktimen ikuspuntutik ikusia: emakumeak eta haurrak. Drama Troyan kokatzen da, baina hau edonongo gerraren drama da, Troya edozein tokitan baitago mitoa, nonahikoa, historia bihurtzen denean. Troya Palestinan, Bosnian, Afganistánen dago, ... Lur azaleko gune guztietan, gerrak emakumearen malkoak isuri arazten dituenean, bere hildakoengatik. Euripidesek utzi zien gerra honetako emakumeei bere gorputz akituak ikustarazten, etsipenatik zalantza doazen ahotsak entzuten eta inguratzen duten etsai-munduaren kontra errieta egiten. Bere tragediak salatzen du gerraren biktimen lastura orekaezina, konpromiso eta oratorioaren artean, antzerki politiko konprometitua eta drama lirikoaren artean.

Sarrera: 6 €



Centro Cultural Tafalla Kulturgunea – 20:30

abe. 2tik 7ra TBW

TUBALA BRASS WEEK

Abenduak 2:

PABLO SARASATE KONTSERBATORIO PROFESIONALEKO METALEN TALDEA
Sarrera: 3 €

Abenduak 3:

TAFALLAKO UDAL MUSIKA ESKOLAKO METALEKO IKASLEAK
Sarrera: 3 €

Abenduak 4:

PAMPLONA BRASS QUARTET. "BRASS & ROCK"
ikuskizunaren estreinaldia
Sarrera: 6 €

Abenduak 5:

IRAKASLEEN ERREZITALDIA.
Luis González, tronpeta.
Carlos Gil, tronbia.
Pascual Jover, pianoa.
Sarrera: 3 €

Abenduak 6:

SPANISH BRASS Luur Metals & TAFALLAKO ABESBATZAK & LA TAFALLESA MUSIKA BANDA
Sarrera: 6 €

Abenduak 7:

ITXIERA KONTZERTUA
SPANISH BRASS Luur Metals
Sarrera: 10 €

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea – 20:00

abe. 4 ostirala

TUBALA BRASS WEEK

Pamplona Brass Quartet

“Brass & Rock”

Pamplona Brass taldeak “Tubala Brass Week” hirugarren edizio honetan aurkezten du nazioarteko rokari emandako ikuskizuna; bertan metal laukotea erritmo laukotearekin nahasten da sinbiosi bakarra lortuz, erreperitorio herrikoiaz gozatzeko.

abe. 6 igandea

TUBALA BRASS WEEK

Spanish Brass eta Tafallako taldeak

Kontzertuaren lehen zatian, boskotearekin batera Agrupación Coral Tafallesa taldeak eta Tubala Uxoak Abesbatzak abestuko dute; bigarren zatian “La Tafallesa” Musika Bandak lagunduko dio izen handiko boskote honi.

Sarrera: 6 €

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea – 20:00

abe. 7 astelehena

TUBALA BRASS WEEK

Spanish Brass Luur Metalls

“25 años”



SPANISH BRASS – Luur Metalls
“Tubala Brass Week” jaialdiak Haize-Metal boskoterik entzutetsuentariko bat aurkezten du eta oraingoan 25 urte! emankizuna ekarriko du Tafallara.
Spanish Brass Luur Metalls taldeak mende laurdena betetzen du eta zuekin guztiokin ospatu nahi du. Horregatik bere erreperitorioko onena ekarriko du emankizunerako. Musika anitzak, “neurritza eginak” edo egokituak, disdiratsuak edo ahulak,... horiekin guztiokin Spanish Brassek ikusle goari gozarazi nahi dio.

Sarrera: 10 €

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea – 20:00

abe. 12 larunbata

MUSIKA

Ensemble Tubala Instrumental

“Historia de un soldado”



“La historia del Soldado” Igor Stravinsky sortutako lana da Suizako exiliotik, historiaren une nahasi batean, Errusiako Iraultza bitartean eta I. Mundu Gerra bitartean. Antzezlana ez ohikoa da, musikari taldeak eta narratzaileak eszenatokia konpartitzen baitute Soldadu, Deabrua eta Printzesarekin. Argumentuak, ipuin eta elezaharretan oinarritua, azalduko digu ihes egiten duen soldaduak bere bibolina saltzen diola deabruari, zerbaiten truke...

Musika emankizuna hitzaldi eta irudi emanaldi baten ondoren izango da, Mila Flamariqueren eskutik (Musikologian lizentziatua) ikusleak antzezlana testuinguru historikoan sartzearen helburuarekin, hobeki ulertu ahal izateko eta gehiago gozatzeko.

Sarrera: 8 €


Centro Cultural Tafalla Kulturgunea – 20:30

abe. 18 ostirala

ANTZERKIA

Tdiferencia Antzerkia

“Las alegres casadas”



Windsor, Ingalterra, milaseiehun eta piko. Eta hala eta gutziz ere Espainia bimila eta piko ere izan liteke. Edo Ámsterdam edo Londres: desioa, moralak, jokoa eta interesa dagoen edozein toki izan daiteke. Falstaffek, erdipurdiko Sir, erdi zaldun, erdi soldadua, erdi pobrea, oso lodia, ikaragarri mozkortia eta bizizale handia, pobretik ateratzea erabakitzen du bi burges emakume limurtuz: biak ezkonduta, amak, errenta onekoak, seme-alabekin eta maila ekonomiko ona duten senarrek. Limurtzea eta dirua ateratzea dena bat izango da... Baina emakume hauek ez dira ergelak eta ez diote utziko iseka egiten.

Las Alegres Casadas, Nafarroako ekoizpena da, asmo handiko antzerki-egitasmoa Andrés Lima madrildarrak zuzendua; Espainiako eszena zuzendari handienetako bat da.

Sarrera: 8 €

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea – 20:30

UDAZKENEKO HAUR ZIKLOA

urr. 21 asteaz.

HAUR ANTZERKIA

Iluna Teatro

“Un cuento de caballeros”



Ana Montaña eskolak antolatut duen erdi aroko kanpamentura joateko prestatzen denean, ez daki zer etorriko zaion gainera. Berak uste du zaldunak direla mutil ausartak, jendea salbatzen dutenak, dragoiak akabatzen dituztenak eta erregeak bukaeran agertzen direla dena ongi amaitzeko. Ipuin musikala da, estereotipoak apurtu nahi dituena. 3 urtetik aurrera.

aza. 4 asteaz.

HAUR ANTZERKIA

Vaiven producciones

“Cyrano de Nueva Orleans”



Nueva Orleanseko Cyrano musikarekin, bizitzarekin eta bertsoarekin dago maitemindua, baina batez ere... Roxanarekin. Cyranok lortuko al du bere beldurrak, konplexuak eta bere harrotasuna gainditzea, Roxanari bere maitasuna aitortzeko? 6 urtetik gorako neska-mutilei zuzendua, baina batez ere familia osoarentzat, humorez bete, mezu argia eta baikorra.

aza. 25 asteaz.

HAUR ANTZERKIA

Incierto Troupe Pamplona

“Hay que salvar a mamá”



Bazen behin..Elena eta Markel izeneko neska mutilak. Gau batean ohean daudela, ate danbatekoa entzuten dute. Elenak eta Markelek pentsatzen dute ama garun beltzeko gizonak bahitu duela eta bere ama salbatzera aterako dira kalera... Ogroak, sorginak, maitagarriak topatuko dituzte eta abentura handiak biziko dituzte..

Obra hau Hirugarren Sektoreko Antzerki Jaialdiaren menpe dago Antolatzailea: Gabalzeketa Teatro Babeslea: Kultur Patronatua

urr. 24 larunbata

La Tafallesa Musika Banda eta Serafín Zubiri

“Nino Bravo gogoratzuz”



Emanaldiak eramango gaitu XX. mendeko abeslari hoberenatariko baten abestietan zehar ibilaldi ederra egitera: Nino Bravo abeslari valenziarrak idatzitako orri disdiratsua. Emanaldi honetara bertaratzen direnek artistaren bizitza eta lanaren hainbat xehetasun ezagutuko dituzte, izan ere hainbat ikus-entzunezko emango baitira desagertutako artistaren irudi eta oroitzapen biografikoen bitartez.

Sarrera: 10 €

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea – 20:00

aza. 22 igandea

La Tafallesa Musika Banda “Zezilia Deunaren Kontzertua”



“La Tafallesa” Musika Bandak Zezilia Deunaren eguneari (musikarien patroia) kontzertu paregabea eskainiko digu. Kontzertu berezia izango da, izan ere kide berriak aurkezteaz gain, Bandan 25 urte betetzen dituztenak ere omentuko baitituzte. Kontzertuan entzun ahal izango dira Manuel Lilloren rekinto, klarinete eta banda eta Philip Sparke eta James Barnesen lanak, besteak beste.

Sarrera: 3 €

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea – 12:30

27 dic. igandea

La Tafallesa Musika Banda

“Eguberrietako Kontzertu
benefikoa ANFASentzat”



“La Tafallesa” Musika Bandak Eguberrietako kontzertua eskainiko digu; musikarekin gozatzeaz gain, ANFASeko haur batzuren irudiak ikusi ahal izango ditugu eta seguru ustekabe bat edo beste izango direla kontzertu honetan.

Sarrera: 5 €

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea – 12:30

Liburutegi Publikoan

Ipuin kontalariak

4 eta 8 urte bitarteko neska-mutilentzat
Ostegunetan, 18etatik 18:30etara, urritik martxora,
oporretan salbu.

Hilabetearen azken ostegunean saioa euskaraz
izango da.

Irakurketa Taldea

Hilabetean behin, azken astean:

A taldea, koordinatzailea Marina Aoiz: hilabetearen
azken astelenean, 19:15ean.

B taldea, koordinatzailea Maribel Andueza:
hilabetearen azken asteazkenean, 19:30etan.

II. Literatura lehiaketako SARI BANAKETA

Literatura Lehiaketako SARI BANAKETA EKITALDIAN,
“Errimatuz garenera arrimatuz” kantu proiektua
aurkeztuko da, non bat bateko eta aurrez landutako
hip-hop kantak eskainiko dizkigun Oskar Estangak,
denak bere sormenekoak.

Azaroak 27, ostirala. 20:30

Centro Cultural Tafalla Kulturgunea

Eguberrietako Haurrentzako Zikloa

abenduaren 28,29 eta 30ean

Erakusketak

Centro Cultural Tafalla Kulturgunean

Astelehenetik larunbatera: 19 – 21

Igande eta jai egunetan: 11:30 – 14

Sarrera eta Abonuen salmenta




Sarrera solteak urriaren 2tik aurrera (ostirala) Tafalla Kulturguneko Atezaintzan 12etatik 14etara eta 17etatik 21etara, astelehenetik ostiralera.

Internetez, www.tafalla.es

Abonuak irailaren 30an (asteazkena) eta urriaren 1ean (osteguna) 12etan Tafalla Kulturguneko txarteldegian.

Internetez, www.tafalla.es

ABONU MOTAK

-  **Abonu orokorra:** 50 € (12 € aurreztu)
-  **Abesbatza-abonua:** 18 € (6 € aurreztu)
-  **Hirugarren sektoreko abonua:** 25 € (5 € aurreztu)

Abonu orokorra

- urri. 10** Opera “El traje nuevo del emperador”
- urri. 17** Antzerkia “Bancarrota”
- urri. 23** Antzerkia “Aquí va a pasar algo”
- abe. 4** Kontzertua “Pamplona Brass Quartet”
- abe. 6** Kontzertua “Spanish Brass+Corales+Banda”
- abe. 7** Kontzertua “Spanish Brass”
- abe. 12** Kontzertua “Historia de un soldado”
- abe. 18** Antzerkia “Las alegres casadas”

Abesbatza abonua

- urri. 27** Emils Darzins Koris (Letonia)
- urri. 28** Marzcibányi Ter Gyermekkara (Hungria)
- urri. 29** Stockholm Musikgymnazium Choir (Suecia)
- urri. 30** Cwu Cjhamber Choir (Estados Unidos)

Hirugarren Sektoreko Abonua

- urri. 31** Plétora Teatro (Plasencia – Cáceres)
- aza. 7** El Liceo De Epidauro (Alicante)
- aza. 14** La Peseta Teatro (Gijón – Asturias)
- aza. 21** Enterarte Teatro (Boecillo – Valladolid)
- aza. 28** Kumen Teatro (Langreo – Asturias)